

PLANO SUBJEKTIBOA

■ Koldo Almandoz

Intimacy autrement

Edo intimitatea beste era batera. Hitzik gabekoa. Izenik gabekoa. Asteazkenero larrua jotzeko elkartzen diren ezezagun bik duten intimitatea. Sexua. Desioa. Barruraino sartzeko beharra. Patrice Chereauk, haragia eskaintzen digulako **Intimacy**-n. Apaingarrik gabe. Gela ilun eta txiki bat pantaila handi batera eramanaz. Sexua. Batzuetan beste batzuetan baino gozagarriagoa. Sexua beste era batera. Eta guk ezagutzen dugun erara. *Lucía y el sexo*-ren argi eta ko-reografiarik gabe; *Baise Moi* eta *Romance X* bezalako ukitu sasipornorik gabe. Moralarik gabe. Eta pelikula irauten dituen 119 minutuetan, zine aretoko eserlekuan postura hartu ezinik.

Autrement. Beste era batera. Hala ikusten du Christophe Otzenberg-ek gaur egungo gazteen izaera. Errealismoan oinarritu nahi, baina biktimismoan erortzen den hainbat pelikularen artean, *Autrement*-ek bestelako ikuspegi bat eskaintzen du. Hiru gaztek, haxixarekin trapitxatzeagatik, lau hilabeteko kartzela zigorra eta bi urtez Parisera inguratzeko debeku zigorra jasoko dute. Abiapuntuak ez badu halakorik iragartzten, —kontrakoa esango nuke nik— istorioa garatzen den heinean pelikula ezberdina dela konturatzen gara. Alter-

natibotasuna saltzen duten, dugun, gazteen jokaera erreakzionarioa ondo islatzen da bertan. Fabriketan eta lanbide aspergarrietan aritu nahi ez duen belaunaldi idealista honen kontraesanak agerian geratzen dira filmean. Hiru protagonistak jatorrak beharko lukete, baina ez dira. Edo batzuetan soilik. Ez dute gustuko, gustuko ez duten lanetan aritzea. Hori besteek egin beharrekoa da. Haiek bezain azkarrak eta idealistak ez direnak. *Autrement*-ek ez dio, *Intimacy*-k bezala galtzetan tokirik gabe geratzen den hankartekoari poz berezirik

emango. Baina badu ausardiarik. Lanaren errutinan bizi eta zoriontsu izaten saiatzen denaren ausardi bera.

Eta bi filmetan, berriro ere, Zabaltegi eskaintzen duen luxua: aktoreak ez diruditen aktoreak. Bizitza zatiak diruditen istorioak. Eta nahiz eta bien artean alde badagoen, batek Berlingo Zinemaldian Urrezko Hartza eskuratu du, eta besteak, ziurrenik, pare bat urtez zinemaldi zirkuitua egin ostean, Frantziako filmotekako apaletan izango du bere txokoa *per secula seculorum*. Gaur, Aute-ren txakurra bisitatuko dut. Ziur baina, orain arte Zabaltegi bizitako erreallitate gaindosi hauek ez direla batere mesedegarriak.

ZABALTEGI. Baz Lhurmannen 'Moulin Rouge' film musikalaren emanaldiak jende asko bildu zuen Belodromoan



GARI GARAIALDE

Baz Luhrmann zuzendaria eta Ewan McGregor aktorea.

Ewan McGregor: «Erronka hunkigarria izan da filmaketa»

Gustura dago aktore eskoziarra erregistro asko «eta denbora luzez» landu dituelako

Ainhoa Oiarzabal | DONOSTIA

Izarra noiz agertu zain, Kursaa-leko bigarren aretoa kazetari eta argazkilariz beterik zegoen atzo arratsaldean. *Transpointing*-en, *Stars War*-en eta orain *Moulin Rouge* filmean Nicole Kidmanekin batera protagonistaren papera betetzen duen Ewan McGregor aktore ezagunaren zain ziren guztiak. Aurrez aktorea eseri behar zuen mahaitik urrunarazi zituzten argazkilariak berehala gerturatu ziren McGregor agertu zenean.

Luze jo zuen aktore eskoziarra hizketan hasterako.

Orain arte beste rol batzuk jokatutakoa eta *Moulin Rouge* film musikalean dantza egitea nahiz abesteak beldurra eman ote zion galdegitean, «aitzitik, oso dibertigarria izan da», erantzun zuen aktoreak. Filma zuzendari Baz Luhrmannek erregistro asko eta desberdinak erabiltzera behartu duela eta hori aktore bati gerta dakioken gauzarik onena dela gaineratu zuen: «Nik neronek ez nuen uste horrelako ahotsa nuenik. Nire onena atera dit».

Lau hilabete entsegatzen

Gidoia osorik irakurri gabe onartu zuen Ewan McGregorrak *Moulin Rouge*-rako eskaini zioten papera: «Luhrmannek emandako azalpenekin nahikoa nuen. Hala ere, ez nuen espero gero Australian topatu nuena aurkitzerik; han emozioek gainditu egin ninduten». Izan ere, film musikal arina izango zela uste omen zuen. «Australian entseatzen aritu garen lau hilabetetan, ordea, etenik gabe aritu gara lanean; arte dramatiko-ko eskola zirudien. Oso dibertigarria eta hunkigarria izan da». Entsegu horietan gogotik dantzatu eta kantatu dute. «Zirrargarriena musika entzutea zen, ozen. Bazirudien antzoki batean zuzenean ari ginela, eta ekipa tekniko gure ikuslea zela». Hala ere, filmaketaren ondorengo jaiak «ederragoak» izan zirela gaineratu zuen aktoreak Kursaa-leko aretoan bildutako kazetarien barre algaren artean.

Aktore gaztearen arabera, «dena zen posible» *Moulin Rouge* filmatzen ari zirenean. Hala, aurrez horrelako lanetan esperimentziarik eduki ez arren gogoz heldu zioten desafioari: «Goize-ro esnatzen ginenean eskuarte- an erronka hunkigarri bat genuela etortzen zitzaigun burura».

EWAN MCGREGOR

Aktorea

«Erregistro asko landu ditut; neronek ere ez nuen uste horrelako ahotsa nuenik. Nire onena atera dit»

«Filmaketa garaian zirrargarria zen musika ozen entzutea. Bazirudien antzoki batean zuzenean ari ginela»

Erronka hori Baz Luhrmannek lan honekin hasi nahi duen film musikalean aro berria da. Eta proiektu berri guztietan bezala, berori aurrera ateratzea zaila izaten da zenbait unetan. McGregorrenzat filmeko koreografia handiak egitea lan konplexua izan zen, «oso erritmo bizia baitute».

Pertsonaia sinistearen garrantzia

Luhrmannek film honetako aktoreei euren ahotsa, mugimendua eta bihotza uztea eskatu die. Hots, pertsonaia sinistu eta bizi egin behar zutela: «Horrela, barrutik irten zait Christianen pertsonaia, ez dut inolako erreferentziarik erabili».

Nicole Kidman aktoreak interpretatzen duen Satine kaba- ret dantzariarekin maitemindutako poeta txiroa da Christian: «Izugarria da pertsonaia honek egiten dituen maitasun adierazpenak interpretatzeko kantuak ematen duen askatasuna», azaldu zuen McGregorrak prentsaurrekoaren amaieran bere pertsonaiaren poetikotasunari buruz. Berori ere *Moulin Rouge*-ko gauek harrapatu dutela zirudien.